

PEDRO BERRONDO (1919-2002)

Gillermo Etxeberria

Aurten betetzen dira 400 urte *D. Quijote de la Mancha* argitaratu zenetik. Urteak pasa ahala handitzen joan da lehen nobela moderno honen ospea. Aurten nonahi eskura dezakegu gaztelaniaz liburu hau prezio oso merkean.

Gaurko gure solasa, ordea, Pedro Berrondo da, Kijoteren itzulpen osoa euskarara egin duen bakarra. Badira itzulpen partzialak, baina osoa Pedro Berrondorena soilik.

Egia esan, gure literaturak funtzionatzen du funtzionatzen duenean, eta egia esan, Berrondori ospea batik bat itzulpen honek eman badio ere, ez dut uste gure artean oraintsu arte Berrondo hain ezaguna genuenik.

Bada, begira, herri hizkera maite duenak hartuko du sorpresa ederrik haren hizkuntza dastatzean. Laster argitaratuko ditugu berriro ere berak duela hainbat urte argitaratutako bi aleak, prezio jatorrean. Antologia nahi duenak, jadanik dendan dauka euskara batuan jarrita.

Bere jaiotetxea, Aranguren, Oiartzungo partean zegoen. Baina enpresa bat bertan jarri eta Aranguren berri bat eraiki zuten. Aranguren berri hau Errenteriako lurretan dago, nahiz bidez eta egokitasunez Oiartzuna jotzen duen.

Bertan bizi da, osasuntsu bere anaia Jose Inazio, hamaika lan egindakoa Añabitarteko Ikastolaren inguruan, hango lur mugitze eta gainerakoetan; eta, askok bezala, trukean ezer eskatu gabe. Solas bizia izan dugu bere etxean. Emaztea mediku errebi-siora joan eta berandu iritsi da. Hala, hasieran inor gutxi bageunden ere, azkenera bete da ederki asko etxe hura.

Askok esan dute Kijotezalea zela Pedro Berrondo apaiza. Eta Los Ríos-en misiolari zegoela hamakan etzanda, sargoriaren itzalean irrikaz irakurtzen zuela Kijotea. Egia esan, Los Ríos-er misiolari joateko Kijote izpiritutik izan ere behar baita, eta ez gutxi. Han idatzi zuela esan dutenak ere badira. Bera 1949-1965 urteetan egon zen han, eta Jose Inazio anaiak esango digunez, ez da egia han bukatu zuenik. Gonbidatu ere gonbidatu gaitu D. Pedro Berrondok zer gelatan idatzi zuen, amaitu zuen, ikustera. Baina, joan beharrik gabe sinistu diogu. Hori eta gehiago ere. Hamaika ordu pasa omen

zituen gela hartan, ir-ten ere egin gabe. Beraz, han bukatu omen zuen, bere iritzian, Kijotea.

Kontu gehiago ere esan digu Jose Inaziok. Berriketari aparta, sei seme-alaba izan ziren Arangurenen, Pedro 3.a. Gerra garaia ere buruan du, nazionalak aitaren bila etorri eta topatu ez zutenean, seme zaharrena eraman eta fusilatu egin omen zuten. Alboko etxean, etxeko hamaika umeren aita, eraman eta kupida gabe hil zutena. Eta zenbat eta zenbat kontu gehiago.

Aranguren zaharra, Oiartzun bazen ere, alde bat Errenteria omen zuen. Gerraurre hartan, Errenteriako azokara baserriko gauzak eraman behar eta, han egoten omen zen "xixerua" kobratzeko prest; nola esan, oraindik ere kamino bazterretan dauden arbitrio edo antzeko lana burutzen zuena. Baina, bazuten hura toreatzeko modua. Oiartzungo omen zen delako "xixerua" eta beraiek, hura han zegoela ikustean Errenteriako atetik sartzen omen ziren etxera.

Beraz, horra Berrondoren zenbait zertzelada eta familiaren berri. Jendeak oraindik ere oroitzen du Berrondo, haren ahotsa, hizkera sendoa, apaiz sotana eta gainetik alkandora zuri-zuria bistan zuena. Hark ematen zituen paseoak bai Kontxa aldean, nola Artzain Onaren atzeko plaza inguruetan. Ez omen zen modernitateen aldeko. Bada, gaur gure artean balego, izango luke zer esana...

Ez zuen bere gustuko euskara batua, baina bere euskara nolakoa den ikusi nahi duenak, ikus dezake argi eta garbi haren dotorezia eta herritartasuna.



Kijotea euskaratu zuen D. Pedrok